

“Ez gara etxeko lanen aldekoak gaur egun erabiltzen diren moduan eta daukaten formatuarekin”

Jesus Salido

Guraso Elkartearen
Espainiako
Konfederazioaren
lehendakaria (CEAPA)

Garbi diote. Guraso Elkartearen Espainiako Konfederazioan (CEAPA) ez daude ados etxeko lanekin, ez behizat gaur egun erabiltzen diren moduan. Erakunde horretako presidentek, Jesus Salido Navarrok, nabarmentzen du estresa eragiten dutela ikasleengan eta tentsioak eragin ditzaketela familien artean. Iruditzen zaie gizarte desberdintasunak eragiteko faktore bat izan daitezkeela familien baldintza ekonomikoen eta formazio ezaugarrien arabera. Haren iritziz, hauxe da arazoaren muina: eskolan edukia ez omen dute azaltzen ikasle guztiak ulertzeko moduan eta egintzat ematen omen dute eskolaz kanpokoarekin osatuko dela ulertzeko falta den hori. “Hortik dator etxeko lanak agindu eta egiteko behar zabaldu hori”. Hori dela eta, beharrezkotzat jotzen du ikasle guztien beharrezkotara egokituko den ikasketa metodologia bat ezartzea.

Etxeko lanak, bai edo ez? Gaur egun erabiltzen diren moduan eta daukaten formatuarekin, ez.

Etxeko lanek estresa eragin al diezaiekete haurrei? Bai, ez egitearen ondorioek eragiten duten presioarengatik. Eragina izaten du ebaluazioan eta azken notan, eta ikasleek lehendik duten zama handiari eransten zaio eta lehenetsia hartzen du aisialdiko beste jarduerak batzuen ondoan, nahiz eta horiek ere beharrezkoak diren ikasleentzako garapen osorako.

Etxeko lanek gizarte desberdintasunak eragin al ditzakete? Jakina. Familien ereduak, prestakuntzak, eza-gutzak transmititzeko gaitasuna... asko aldatzen da eta baldintzatu egiten du seme-alaben ikaskuntza. Gainera, notei eragiten dienez, kontuan hartzen dira ikasturtea gaunditzeko. Ondorioz, familiek eskola partikularrak edo aka-

demiak bilatzen dituzte, eta, horrela, familien gaitasun ekonomikoaren mende gelditzen da bilakaera akademikoa.

Ikastetxe guztietara zabaldu behar al lirateke errefortzu zerbitzuak? Errefortzua ez da konponbidea etxeko lanentzat eta ez du zerikusirik horien zamarekin. Edonola ere, komenigarria litzateke ikastetxe guztietara zabaltea. Ikastetxe batzuetan, Hezkuntza Sailak aukera ematen du doako errefortzua izateko, baina ez dute eskatzen eta, aldi berean, akademiara joateko gomendatzen diete familiei.

Oro har, etxeko lanen alde al daude familiak? Familiek irakasleen gomendioei jarraitzen diete. Irakasle batzuek ez dute bidaltzen etxeko lanik eta beste batzuek bai; eta familia batzuk etxeko lanen alde daude eta beste batzuk ez.

Etxeko lan gehiegi bidaltzeak eragin al diezaioke gurasoen eta seme-alaben arteko harremanari? Eragiten dio, zeren etxeko lanak egitea jartzen baita familiako beste edozein jardueraren eta aisialdiko jardueren aurretik. Irakasleen gomendio bat izaten da, ez familien hautua. Gainera, kalte egiten dio gurasoen eta seme-alaben arteko harreman afektiboari, gurasoek jarraitzea egiten baitiete seme-alabei, zaindu egiten dituzte eta atzetik ibiltzen zaizkie etxeko lanak egiteko, eta horrek tenkatu egiten du harremana.

Lehen Hezkuntzan, galarazita daude etxeko lanak. Gurasoek ba al dakite hori? Etxeko lanak ez egitearen ondorioz kalifikazioa apaltzeak berekin dakar gurasoek arau hori onartzea. Irakasleei dagokienez, askok beren katedra askatasunean eta beren programazio didaktikoen ebaluazio irizpideetan sartzen dute jardunbide hori, eta, hortaz, hezkuntza komunitate guztiak onartzen duen arau bihurtzen da. Zenbait faktorek eragin dezake-

te irakasleek erabaki hori hartzea; adibidez, curriculum guztia emateko presioak, ratioak handitzeak eta kanpo probak egiteak.

Zer-nolako funtzioa bete behar dute etxeko lanek Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan? Eskola ereduak kanpo ariketak egitearen funtzio bakarra izan behar du eguneroko bizitzan txertatzea ikasgelan bereganatu dituzten ezagutzak. Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan, borondatezkoa izan behar du curriculumari dagozkion ariketa horiek egitea, eta gai edo eduki jakin bat sendotzeko erabili behar da.

Zer-nolako zeregina dute irakasleek? Sarri askotan, arazoa izaten da edukia ez dutela azaltzen ikasle guztiak ulertzeko moduan eta egintzat ematen dutela eskolaz kanpokoarekin osatuko dela ulertzeko falta den hori. Hortik dator etxeko lanak agindu eta egiteko behar zabaldu hori. Beharrezkoa da ikasle guztien beharrezkotara egokituko den ikasketa metodologia bat ezartzea. Bestalde, eskolako ereduak ere badi eragina etxeko lan kopuruan. Lanaldi jarraituko ikastetxeek gehiago izaten dituzte, murriztu egiten dutelako eskolen iraupena, ez delako izaten hainbeste atseden tartetik batetik bestera, ikaskuntza erritmoa bortxatu egiten delako ulermenaren kaltetan, eta, gainera, irakasleek eta familiek barnertuta bezala dute arratsalde guztia libre dutela etxeko lanak egiteko.

Eskolaz kanpoko jarduerak ere etxeko lanak egiteko beste modu bat al dira? Bai, curriculumeko jardueraren bat sendotzeko egiten direnean, adibidez beste hizkuntza batean egindako jarduerak, baina ez jolas jardueraren bat egiteko direnak. Haurrak berak nahita eskolaz kanpo egiten dituen jolas eta kirol jarduerak ez lirateke sail horretan sartuko.

